



BEASAINDIK

ARGITARATZAILEA: BEASAINGO UDALA • LG SS-00403-2016

Klima-aldaketari erantzuteko neurriak bultzatzen

*Freskatzeko iturri eta ur jolas guneak eta,
Sagastigutiz gain, babesgune klimatiko
berriak sortuko dira, Igartza-Oleta,
Errekarte eta Trenbide kalean*



Intervenciones en
aceras, cruces y
calzadas para mejorar
la movilidad

—
04-05



Etxelagun proiektuaren
tailer-saioa Beasainen: bakar-
dareari aurre egiteko etxebi-
zitza prototipo bat diseinatzen

—
07



★
Zuen
alkatea

Leire Artola Ugalde
BEASAINGO ALKATEA

"Espazio publikoa egokituz gure osasuna babesteko"

Klima-aldaketaren zantzuak aspaldi honetan agertzen ari dira. Ez da etorkizuneko mehatxu bat, gure egunerokotasunean gero eta nabariagoa den errealitatea baizik. Udan batez ere, bero-bolada gero eta ohikoagoak, freskatu gabe igarotzen diren gauak eta gure inguruneak jasaten dituen euri jasa neurrigabeak dira aldaketa horren seinale argiak. Horregatik, Beasaingo Udaletik urrats sendoak ematen ari gara gure herria egokitzeko eta ondorio horietatik babesteko. Neurri zehatzak jarri ditugu martxan, helburu garbi batekin: ahal den neurrian ingurumenari kalte gutxien egin eta klimaren muturreko eraginen ondorioetarako prestatua izatea.

"Adaptando el espacio público para proteger nuestra salud"

Las señales del cambio climático llevan tiempo haciéndose visibles. No es una amenaza futura, sino una realidad cada vez más evidente en nuestro día a día. Especialmente en verano, las olas de calor más frecuentes, las noches sofocantes y las lluvias torrenciales que sufre nuestro entorno son pruebas claras de ello.

Por eso, desde el Ayuntamiento de Beasain estamos dando pasos firmes para adaptar nuestro municipio y protegerlo de sus consecuencias. Hemos puesto en marcha medidas concretas con un objetivo claro: minimizar el posible daño al medio ambiente y estar preparados frente a los efectos extremos del clima.

Ezinbestean espazio publikoan babes klimatikoko eremuak sortzen joan behar dira. Berdeguneak, itzal-guneak, edateko ur iturriak, eta atseden-leku erosoak eta freskagarriak jartzea dira horren adibide eta konponbideak prestatuta egoteko. Baina hau hasiera besterik ez da. Badakigu tokiko ekintzek benetako eragina dutela, eta erabaki txikiek, ondo hartuta, herritarren bizitza-kalitatean eragin handia dutela.

Horregatik, herritar guztiak animatu nahi zaituztet hausnarketa egitera, muturreko beroaldiak zein euriteak datozenean tentuz jokatu dezagun gure osasuna babesteko neurriak hartuz.

Es imprescindible crear zonas de protección climática en los espacios públicos. Zonas verdes, espacios de sombra, fuentes de agua potable, y lugares de descanso cómodos y refrescantes son algunos ejemplos y soluciones que estamos impulsando para estar preparados. Pero esto es solo el comienzo. Sabemos que las acciones locales tienen un impacto real, y que las pequeñas decisiones, bien tomadas, influyen positivamente en la calidad de vida de la ciudadanía.

Por ello, animo a todos los vecinos y vecinas a reflexionar, de manera que protejan su salud en los episodios de calor o lluvias torrenciales que son ya una realidad.



Itzalguneak, berdeguneak eta ur-jolasak

Beasainek urrats sendoak eman ditu klima-aldaketari aurre egiteko

Beasainek, klima-aldaketaren ondorio gero eta nabarmenagoen aurrean, tokiko neurri eraginkorrak hartzen jarraitzen du klima babesteko konpromisoa indartuz. Udalaren Energia eta Klima Aldaketaren Planaren arabera, mendearen amaierarako tenperatura minimo, ertain eta maximoek 3,2 eta 3,3 °C artean egingo dute gora, eta bero-boladen, gau tropikalen eta egun sargoritsuen kopurua nabarmen handituko da.

Testuinguru horretan, Udalak hainbat egokitzapen-neurri jarri

ditu abian herritarren ongizatea bermatzeko. Nabarmenen artean daude itzal-guneak sortzea Igartza-Oleta eta Errekarte kaleetan, iturri publiko berriak jartzea eta jada sortutako Dolarea parkean freskatzeko ur-jolasen gunea.

Neurri horiek udal gobernuaren ingurumenarekiko sentsibilizazioa erakusten dute, eta udalerriri irisgarriagoa eta jasangarriagoa sustatzeko borondate argia dago. Tokiko jardunetatik abiatuta, Beasainek eskualdeko ingurumen-konpromisoaren adibide izan nahi du.

Beasain da pasos firmes frente al cambio climático

Beasain, consciente de los efectos crecientes del cambio climático, intensifica su compromiso con la protección climática a través de acciones locales concretas. Según el Plan de Energía y Cambio Climático del Ayuntamiento, se prevé un aumento significativo de las temperaturas —entre 3,2 y 3,3 °C para finales de siglo— y un incremento de las olas de calor y noches tropicales.

Ante este escenario, el consistorio está impulsando intervenciones para adaptar el municipio y proteger a la ciudadanía. Entre las medidas destacadas se encuen-

tran la creación de zonas de sombra en las calles Igartza-Oleta y Errekarte, la instalación de nuevas fuentes públicas y la habilitación de espacios de esparcimiento con juegos acuáticos como el ya construido en Dolarea parkea.

Estas actuaciones reflejan una creciente sensibilidad del gobierno municipal hacia la sostenibilidad, fomentando un entorno urbano más habitable y resiliente. Se prioriza así una estrategia local, cercana y efectiva, que sitúa a Beasain como ejemplo de compromiso ambiental en la comarca.

★ Tokiko jardunetatik abiatuta, Beasainek eskualdeko ingurumen-konpromisoaren adibide izan nahi du.

Mugikortasunean eta segurtasunean eragiteko hobekuntzak

Udalak esku-hartzeak egingo ditu abuztuan hasita espaloietan, bidegurutzeetan eta zoladuratan, herritarren mugikortasuna, bide-segurtasuna eta erosotasuna hobetzeko helburuarekin.

Gune nabarmenak: Zaldizurreta biribilgunea, Iturriotz kalea, Andre Mari-Martina Maiz, Igartetxe, Erauskin, Ikasle Zeharkalea, Garin auzoa, besteak beste.

Esku-hartze hauek Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planaren eta udalaren azpiegituren etengabeko hobekuntzaren baitan egingo dira. Lanek 16 asteko iraupena izango dute eta 468.827,80 euroko aurrekontua izango dute (BEZik gabe).

Jarduera nagusiak:
Principales actuaciones:

Iturralde kaleko autobus geralekua egokitzea eta berkokatzea.
Mejora y reubicación de la parada de autobús de Iturralde kalea.

Geraleku segurua eta azkarra Zaldizurretako biribilgunean.
Espacio para parada rápida y segura en la rotonda de Zaldizurreta.

Asfaltua berritzea eta birak hobetzea.
Renovación de asfalto y mejora de giros.

Espaloien eta ertzen egokitzapena.
Adecuación en aceras y bordes.

Aparkaleku berriak Bernedo Enean (osasun-zentroa).
Nuevas plazas de aparcamiento en Bernedo Enea (ambulatorio).



Andre Mari kalea:
Espaloia ertza egokituko da / Adaptación del borde de la acera



Bista Alai:
Espaloia ertza egokitu / Adaptación del borde de la acera



Gernika pasealekua parking:
Biraketa hobetzeko ertza borobildu / Adecuación del borde para la mejora del giro



Igartetxe-Esteban Lasa:
Asfaltaketa eta espaloia birgaitu / Rehabilitación de la acera y asfaltado

Mejoras en distintos puntos del municipio: movilidad y seguridad como prioridad

El Ayuntamiento pondrá en marcha en agosto una serie de intervenciones en aceras, cruces y calzadas con el objetivo de mejorar la movilidad, la seguridad vial y la comodidad de la ciudadanía.

Las actuaciones tendrán una duración aproximada de 16 semanas y un presupuesto de 468.827,80 euros (IVA no incluido).

Zonas destacadas: Zaldizurreta, Iturriotz kalea, Andre Mari-Martina Maiz, Igartetxe, Erauskin, Ikasle Zeharkalea, barrio Garin, entre otros.

Estas intervenciones se enmarcan en el Plan de Movilidad Urbana Sostenible y en la mejora continua de las infraestructuras del municipio.

Zaldizurreta biribilgunean egingo diren bi esku-hartzeak segurtasunean eta irisgarritasunean eragin zuzena izango dute.

Las dos intervenciones que se llevarán a cabo en la rotonda de Zaldizurreta redundarán directamente en la seguridad y accesibilidad



Geldialdi laburra • Parada rápida

Biribilgunean egiten diren geldialdi laburretarako geralekua egokituko da. Se habilitará una zona para las paradas cortas que se realicen en la rotonda.

Bus geltokia • Parada de bus

Iturralde kaleko autobus geltokia biribilgunera ekarriko da erosotasuna eta irisgarritasuna hobetzeko. La parada de autobuses de la calle Iturralde se trasladará a la rotonda para mejorar la comodidad y la accesibilidad.



Iturriotz kalea:
Oinezkoentzako pasabidea sortu / Habilitar paso peatonal



Nafarroa etorbidea:
Bidegorriko zoladuraren margoketa / Pintado pavimento carril bici



Poltsa jasagarriak azokako postuetan

Beasaingo Udalak ingurumenarekiko konpromisoa berretsi du azokan, bertako postu guztiei poltsa konpostagarriak edo birziklagarriak banatuz. Ekimen hau, ekoizleak izan edo ez izan, bereizketarik egin gabe postu guztiei zuzenduta dago, eta saltzen duten produktuaren arabera poltsa mota egokiena jaso dute, aurrez saltzaileekin adostuta.

Poltsa horien banaketaren helburu nagusia plastikoaren erabilera murriztea da, ingurumenaren babesaren aldeko ekintza gisa. Horrez gain, Udalak berrerabilpena sustatu nahi du, eta horretarako, postuetako saltzaileei aholkatu zaie bezeroei erostetak eramateko poltsa etxetik ekartzeko gomendioa emateko. Udalaren ekimen hau pausoa da hondakinen kudeaketa arduratsuago baterako, eta tokiko azokaren ingurumen-inpaktua murrizteko bidean egindako urrats esanguratsua da.

Bolsas sostenibles en los puestos del mercado

El Ayuntamiento de Beasain reafirma su compromiso con el medio ambiente en el mercado municipal, repartiendo bolsas compostables o reciclables a todos los puestos instalados bajo la Plaza, sin distinción entre productores y no productores. La elección del tipo de bolsa entregada a cada puesto se ha hecho en función de las características del producto que venden, y tras haberlo acordado previamente con los vendedores. El objetivo principal de esta iniciativa es reducir el uso del plástico, teniendo en cuenta el daño que este material causa al entorno natural. Además, para fomentar la reutilización, el Ayuntamiento recomendará a los vendedores que aconsejen a sus clientes traer bolsas reutilizables desde casa para transportar sus compras. Esta acción supone un paso importante hacia una gestión más responsable de los residuos y una reducción del impacto ambiental del mercado local.

Beasain participa en el proyecto Etxelagun para combatir la soledad no deseada

Beasain ha acogido un taller del proyecto Etxelagun, una iniciativa que busca prevenir la soledad no deseada en personas mayores y fomentar su autonomía a través del diseño de viviendas adaptadas y redes comunitarias de cuidado. En la sesión, celebrada el 17 de junio, participaron representantes del Ayuntamiento, la UPV/EHU, Osakidetza, el Gobierno Vasco, Asmube y otras entidades. Entre todos trabajaron propuestas para adaptar una vivienda tutelada del municipio, que servirá como prototipo del proyecto. El Ayuntamiento valora positivamente su participación y prevé una futura intervención arquitectónica en la vivienda, con el objetivo de mejorar la convivencia y el bienestar de sus residentes.

Etxelagun proiektuaren tailer-saioa Beasainen Bakardadeari aurre egiteko etxebizitza prototipo bat diseinatzen



Beasain izan da Etxelagun proiektuaren tailer-saio berri baten lekuko. Helburua argia da: adineko pertsonen nahi ez den bakardadea prebenitzea eta haien autonomia sustatzea, etxebizitza egokitu eta komunitatean oinarritutako zaintza ereduen bidez. Saioan hainbat eragilek hartu zuten parte: EHUKo Arkitektura Goi Eskolako CAVIAR ikerketa taldea, Psikologia Eskola, Eusko Jaurlaritza, Osakidetza, Beasaingo Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Asmube elkarte eta teknologia berrietako enpresak. Guztien artean, etxebizitza tutelatuetakoa bat prototipo gisa aukeratu eta egokitze proposamenak landu zituzten, elkarbizitza

eta ongizate emozionala hobetzeko asmoz. Etxelagun proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatzen du, Adinberri estrategiaren barruan. Lehen fasean diseinu gida bat sortu zen, adinekoen beharretara egokitutako etxebizitzak nola eraiki edo egokitu aztertze. Bigarren fase honetan, gida hori praktikara eramatea da xedea, eta horretarako Beasainek bere ekarpena egin du. Udalak oso positiboki baloratu du esperientzia eta etorkizunera begira, hirugarren fase batean, etxebizitza horretan obra zehatzak egitea aurreikusten du, bizi diren pertsonen esperientzia hobetzeko eta beste udalerrietarako eredu gisa baliagarria izan dadin.

Éxito rotundo de las colonias de verano en euskera

Las colonias de verano en euskera organizadas por el Ayuntamiento de Beasain han concluido con gran éxito y una excelente participación. Se han celebrado del 2 al 11 de julio en el albergue Valle del Baztán de Lekaroz, en Navarra, con un total de 50 niños y niñas de entre 9 y 13 años: 27 chicos y 23 chicas.

El principal objetivo de estas colonias ha sido fomentar y extender el uso y conocimiento del euskera, además de ayudar a las familias en la conciliación durante el periodo estival. El programa ha sido muy variado y enriquecedor: escalada, visita a Amaiur con degustación de deliciosos talos, excursión a Elizondo y disfrute



en su piscina, celebración de San Fermín, y cada noche, el día terminaba bailando y cantando en un ambiente inmejorable. La valoración por parte de participantes y

organizadores ha sido muy positiva, y el Ayuntamiento de Beasain ha reafirmado su compromiso de seguir impulsando este tipo de iniciativas en el futuro.

Arrakastatsu amaitu dira aurtengo euskarazko udalekuak

Parte-hartze handiarekin eta eguraldia lagun. Uztailaren 2tik 11ra bitartean ospatu dira Nafarroako Lekarozko Valle de Baztan aterpetxean, eta bertan 9 eta 13 urte bitarteko 50 hurrek parte hartu dute; 27 mutil eta 23 neska, hain zuzen ere.

Udalekuen helburu nagusiak euskararen erabilera eta ezagutza sustatzea dira, baita familiei uda garaian kontziliazioan laguntzea ere. Egitaraua oso zabala eta aberatsa izan da: eskalada saioak, Amaiur-era bisita eta talo goxoez gozatzeko aukera, Elizondo ezagutzea eta bertako igerilekuan primeran pasatzea, eta baita San Fermín ospatzea ere. Gauero, dantza eta kantuz amaitu dute eguna, giro ezin hobean.

Parte-hartzaileen eta antolatzaileen balorazioa oso positiboa izan da, eta Beasaingo Udalak aurrera begira ere egitasmo honekin jarraitze konpromisoa berretsi du.

★ Euskara, kontziliazioa eta aisia lotzen dira udalekuen helburuetan

BERO-ALDIEN AURREAN JARRAITU BEHARREKO GOMENDIOAK



RECOMENDACIONES PARA OLAS DE CALOR

01



Hidratazioa eta elikadura

- Ura edan maiz eta nahikoa, alkohol eta kafeinadun edariak saihestuz.
- Janari arinak eta freskagarriak aukeratu, hala nola fruta eta barazkiak.

Hidratación y alimentación

- Bebe agua frecuentemente, evitando bebidas con alcohol y cafeína.
- Consume comidas ligeras y refrescantes, como frutas y verduras.

03



Egunean zehar jarduera fisikoa

- Eguneko ordu beroenetan (11:00-17:00) saihestu jarduera fisiko handiak eta kanpoko lanak.
- Egokitu eguneroko jarduerak ordu freskoagoetara.

Actividad física durante el día

- Evita actividades físicas intensas y trabajos al aire libre entre 11:00 y 17:00 horas.
- Ajusta tus actividades a las horas más frescas del día.

05



Ahulenak zaindu: adinekoak, haurrak, haurdunak eta gaixo kronikoak

- Jarri harremanetan telefono bidezko laguntzarekin (Teleasistencia).
- Kontrolatu ohiko botiken eta osasun egoeraren jarraipena.
- Ez utzi inoiz inor autoan itxita.

Cuidado especial a grupos vulnerables

- Mantente en contacto con servicios de apoyo telefónico (Teleasistencia).
- Controla la medicación habitual y el estado de salud.
- Nunca dejes a nadie dentro de un vehículo cerrado.

02



Jantzi egokiak eta eguzkitik babesa

- Erabili arropa arina, argia eta zuntz naturalekoa.
- Kapela edo txanoa erabiliz burua eta aurpegia babestu eguzkitik.

Ropa adecuada y protección solar

- Usa ropa ligera, clara y de fibras naturales.
- Protégete la cabeza y el rostro con sombrero o gorra.

04



Etxean eta ingurunean prebentzioa

- Itxi leihoak eta persianak eguzkia sartzea saihesteko.
- Aireztatu gau eta goizeko ordutan, tenperatura jaisteko.
- Erabili aire egokitua edo haizagailuak behar izanez gero.

Prevención en casa y entorno

- Mantén cerradas ventanas y persianas para evitar la entrada del sol.
- Ventila tu casa durante la noche y primeras horas de la mañana para refrescarla.
- Usa ventiladores o aire acondicionado si es necesario.

06



Sintoma arraroak detektatu eta arreta medikoa eskatu

- Buruko mina, goragalea, ahultasuna, desorientazioa edo sudur lehortasuna agertzen badira, jo medikuarengana berehala.

Detecta síntomas y busca atención médica

- Ante dolor de cabeza, náuseas, debilidad, desorientación o sequedad nasal, consulta al médico inmediatamente.

DIRULAGUNTZAK GALDARAK ETA LEIHOAK BERRITZEKO

Energia-eraginkortasuna hobetzeko dirulaguntzak daude eskuragarri galdarak eta leihoak berritzeko.

- Etxebizitza jabeek 400 €-ko laguntza jaso dezakete galdara zaharrak kondentsazio-galdara berrieekin ordezkatuz gero.
- Leiho berriak jartzeko, 1.200 €-rainoko dirulaguntza lor daiteke, 400 €/m²-ko mugarekin.
- Eraikinak 2006. urtea baino lehenagokoak izan behar dira, eta laguntza eskaerak baldintza jakin batzuk bete beharko ditu.

Informazio gehiago eskuratzeko, jo udaletxera edo kontsultatu udal webgunea.

AYUDAS PARA RENOVAR CALDERAS Y VENTANAS

Se han habilitado ayudas para mejorar la eficiencia energética mediante la renovación de calderas y ventanas.

- Los propietarios de viviendas pueden recibir 400 € al sustituir calderas antiguas por otras de condensación.
- Para cambiar las ventanas, la subvención puede alcanzar los 1.200 €, con un máximo de 400 €/m².
- El edificio debe haber sido construido antes del año 2006 y las solicitudes deben cumplir ciertos requisitos.

Para más información, acude al Ayuntamiento o consulta la web municipal.

